

3ª.- Lanek hondatutako bideak eta mendi-azalera modu egokian leheneratuko dira. Konponketa horren barne egon daiteke birlanda-ketak egitea, litekeen ikuspegiaren gaineko eragina zuzentzeko beharrezkoa den kasuetan edo kaltegunearen higadurari ekiditeko.

HIRUGARRENA.- Administrazio Batzarrak aipatu baimenaren baldintzak azalduko dizkio enpresa esleipendunari, enpresa hori izango baita, hain zuzen, baldintzak betetzeko erantzule zuzena.

LAUGARRENA.- Aurreko baimena emateak ez du indarrean dagoen legeriak zehaztutako beste baimen batzuk tramitzea bazterten.

BOSGARRENA.- Goiko baldintzak bete ezean, uztailaren 4ko 13/1986 Foru Arauaren 119 eta hurrengo artikuluek zehazten dituzten zigorrak ezarriko dira.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko apirilaren 10a.- Diputatu Nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBA.- Nekazari eta Ingurumen Saileko foru diputatu titularra, GABRIEL CHINCHETRU FERNANDEZ DE ALEGRÍA.

Foru Arauak

NEKAZARITZA ETA INGURUMEN SAILA

2.584

166/2001 FORU AGINDUA, apirilaren 19koa. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan hegazti basati mokomakurrak bizirik harrapatzeko eta edukitzeko baimena salbuespenez emateko araudia ezartzen da.

Itxian hazi eta beren kantua eta edertasuna hobetzeko asmoz hegazti mokomakurrak harrapatu eta edukitzea kultura tradizio bat da Araban eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Autonomia Erkidegoan, Estatuan eta Nazioartean ere lehiaketa eta erakustaldi ugari egiten dira. Euskal Herriko txorizale-elkarteetako eta kanariozain-elkarteetako kideek hartzen dute parte horietan.

Apirilaren 2ko 79/409/EEE arteztarauak, hegazti basatiak zaintzeari buruzkoak, honako hau agintzen du bere lehen artikuluan: Europar Batasuneko lurraldean basatiak diren hegazti mota guztiak zaindu behar dira. 5. artikuluan espezie guztiak babestuko dituen araubide orokorra ezartzen da. Halere, 9. artikuluari jarraiki, Elkartekideek salbuespenak sar ditzakete babeserako araubide orokor horretan, egoera jakin batzuetan. Esate baterako, hegazti jakin batzuk harrapatzea baimenduta dago, beti ere kopuru txikian bada, eta modu hautakor eta kontrolatuan egiten bada. Bestalde, martxoaren 27ko 4/1989 Legeak, Naturguneak eta Basa Flora eta Fauna kontserbatzeari buruzkoak, 28.2 artikuluan, salbuespenak ezartzen ditu espezie horiek itxian hazteari dagokionez. Ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko Natura Kontserbatzeari buruzkoak, 57.e artikuluan esaten duenez, eskumena duten foru-organismoek salbuespenak jarri ahal izango dituzte espezie jakin batzuk harrapatu eta edukitzeko orduan, baldin eta, ikerketa-, heziketa-, ugalarazte-edo birsartze-arrazoiak direla-eta, beharrezkoa bada, edo itxian hazteko beharrezkoa bada; beti ere, espezie horiek beren ingurune naturalean ondo zainduta edukitzeari kalterik eragin gabe.

Horrexegatik, Nekazaritza eta Ingurumen Sailak egokitzen jo du jarduera hori arautzea eta, horretarako, baldintzak, kontrolak eta murrizketak ezartzea, espezie horietako aleak hazi eta kantuan hezitzeko jarduera tradizionala eta espezie horien kontserbazioa batezartzearen; asmo horrekin, aldian-aldian, itxian hazten diren espezieetarako basa-aleak ekarriko dira.

Esandakoagatik, eta nire esku dauden ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- HELBURUA ETA BAIMENDUTAKO ESPEZIEAK.

1. Agindu honen helburua da Arabako Lurralde Historikoan hegazti basati mokomakurrak bizirik harrapatzeko eta edukitzeko (itxian hazi eta beren kantua eta edertasuna hobetzeko xedearekin egiten da hori) salbuespeneko baimena emateko araudia ezartzea.

3ª.- Realizar la adecuada restauración tanto del viario como de la superficie de monte afectado por los trabajos. Esta restauración podrá incluir la revegetación en los casos en que este extremo sea necesario para corregir un posible impacto visual o para evitar el peligro de erosión del tramo alterado.

TERCERO.- La responsable directa del cumplimiento de estas condiciones será la empresa adjudicataria de las obras a las que la Junta Administrativa deberá comunicar las condiciones de esta autorización.

CUARTO.- Indicar que la presente autorización no excluye la tramitación de otros permisos y licencias que señale la legislación vigente.

QUINTO.- Indicar que en caso de extralimitación o infracción de la autorización concedida serán de aplicación las sanciones establecidas en el artículo 119 y siguientes de la Norma Foral 13/1986 de 4 de julio.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de abril de 2001.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado Foral titular del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, GABRIEL CHINCHETRU FERNANDEZ DE ALEGRÍA.

Ordenes Forales

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

2.584

ORDEN FORAL 166/2001, de 19 de abril, que establece la normativa para autorizar, con carácter excepcional, la captura en vivo y tenencia de ejemplares de determinadas aves fringílicas silvestres, en el Territorio Histórico de Álava.

La captura y tenencia de aves fringílicas para su cría en cautividad y conseguir el perfeccionamiento de su canto o belleza, es una práctica cultural tradicional en Álava y en toda la Comunidad Autónoma Vasca, existiendo gran diversidad de concursos y muestras de ámbito autonómico, estatal e internacional, en el que participan miembros de las sociedades pajariles o de canaricultores del País Vasco.

La Directiva 79/409/CEE, de 2 de abril, relativa a la conservación de las aves silvestres, prescribe en su artículo 1º la conservación de todas las especies de aves que viven normalmente en estado silvestre en el territorio de la Unión Europea, estableciendo en su artículo 5º un régimen general de protección de todas las especies. No obstante, en su artículo 9º contempla la posibilidad de que los Estados miembros puedan introducir excepciones al régimen general de protección en determinados supuestos, entre los que se incluye el de permitir, en condiciones estrictamente controladas y de un modo selectivo, la captura, la retención o cualquier otra explotación prudente de determinadas aves en pequeñas cantidades. Por otra parte y en transposición de dicha Directiva, la Ley 4/1989, de 27 de marzo de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres, en su artículo 28.2 establece excepciones en cuanto a la cría en cautividad y la Ley 16/1994, de 30 de junio de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, establece en su artículo 57.e, que, sin perjuicio del mantenimiento, en un estado de conservación favorable, de las poblaciones de la especie de que se trate en su área de distribución natural, los órganos forales competentes, podrán establecer excepciones en cuanto a la captura de ciertas especies y su posesión, cuando sea necesario por razones de investigación, educación, repoblación o reintroducción, o cuando se precise para la cría en cautividad.

Es por ello que el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente ha estimado conveniente regular, esta actividad, estableciendo una serie de condiciones, controles y restricciones para compatibilizar la conservación de estas especies, con la práctica de actividades tradicionales de cría y educación del canto, mediante la aportación periódica de ejemplares silvestres a las poblaciones conservadas en cautividad.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Artículo 1º.- OBJETO Y ESPECIES AUTORIZADAS.

1. Constituye el objeto de la presente Orden establecer la normativa para autorizar, con carácter excepcional, en el Territorio Histórico de Álava, la captura en vivo y tenencia de ejemplares de determinadas aves fringílicas silvestres, con la finalidad de su cría en cautividad y el perfeccionamiento de su canto o belleza.

2. Hauek dira harrapatu eta eduki ahal izango diren espezieak: kardantxiloa (*Carduelis carduelis*), txorru arrunta (*Carduelis chloris*), txirrismila arrunta (*Serinus serinus*) eta burugorria (*Carduelis cannabina*).

3. Nekazaritza eta Ingurumen Sailak, urtero, baimendutako espezie bakoitzetik gehienez zenbat ale harrapatu ahal izango den ezarriko du.

2. artikulua.- BAIMENDUTAKO ELKARTEEN ERREGISTROA

Honen bitartez, Nekazaritza eta Ingurumen Saileko Naturaren Kontserbaziorako Zerbitzuan, txorizale-, ornitologia- eta kanariozain-elkarteen Erregistroa sortzen da. Foru Agindu honetan arautzen den baimena lortu nahi izanez gero, legearen arabera eratuta dagoen eta erregistro horretan izena emanda duen elkarteren bateko kide izan behar du eskatzaileak.

Elkaratek, erregistratu ahal izateko, honako hauek aurkeztu behar dituzte: elkarteren estatutuen kopia bat, Elkarteen Erregistro Orokorrean izena emateko agiriaren kopia, eta Zuzendaritza Batzordeko edo elkarteren zuzendaritza-organotako kideen zerrenda bat. Nahitaezkoa izango da estatutuetan berariaz agertzea elkarteren helburua dela espezie horiek haztea eta beren kantua eta edertasuna hobetzea.

Urtero, uztaila baino lehen, bazkideen zerrenda aurkeztu behar dute, eta aurreko urteekin konparatuta zerrenda horretan aldaketarik egon denentz esan behar dute; egoera juridikoan eta Zuzendaritza Batzordeko kideetan izandako aldaketak ere jakinarazi behar dira; bai eta talde gisa zein bakarka parte hartu duten lehiaketan zerrenda bat ere.

3. artikulua.- ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK

1. Baimendutako espezieetako aleak bizirik harrapatzeko eta edukitzeko baimenak emateko, beharrezkoa izango da lege eratu eta Nekazaritza eta Ingurumen Saileko Kanariozain, Txorizale eta Ornitologia Elkarteen Erregistroan izena emanda dagoen elkarre bateko kide izatea; horiei bakarrik emango zaie baimena, eurek ez bestek erabiltzeko.

2. Eskaria egin aurreko bi urteetan hegazti mokomakurrak harrapatzearen arloko arauak hausteagatik zigorra ezarri zaienei, edo harrapatzeen berri emateko orriak helarazi ez dituztenei, horiei ez zaie baimenik emango.

3. Espezie horiek hazten jarduten diren pertsona edo elkarteen gune zoologiko gisa egon beharko dute izena emanda dagokien erregistroan, Euskal Autonomia Erkidegoko araudiari jarraituz.

4. Baimenak, lehen-lehenik, azken bi urteetan estatu- edo autonomia erkidego-mailako kantu- edo edertasun-lehiaketatan parte hartu dutenei esleituko zaizkie. Horretarako, ezinbestekoa izango da federatutako epaileak sinatutako balorazio-orriak aurkeztea. Hala ere, baimenetako %10, gehienez ere, zale berriei eman ahal izango zaie.

4. artikulua.- ESKAERAK.

1. Harrapatzeko eta edukitzeko eskaerak Nekazaritza eta Ingurumen Sailari aurkeztuko zaizkio, urtero, apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean, eta eskaerarekin batera, N.A.N.aren fotokopia eta erregistroan izena emandako elkarre bateko kide izatea egiaztatzeko agiria edo abala aurkeztuko dira.

2. Eskaeran, ezinbestean, honako hauek adierazi beharko dira abalatutako kide bakoitzeko:

a) Harrapaketa-lekuak, inguruaren, herriaren edo administrazio-batzarraren eta udalerraren izena zehaztuta. Herriguneetara arte kilometro bateko tartea egon beharko du gutxienez, inolaz ere ez gutxiago.

b) Harrapatu nahi diren espezieen izenak, bai eta espezie bakoitzeko zenbat ale harrapatu nahi den ere, eta ale horien sexua.

5. artikulua.- EBAZPENEA.

1. Ingurumen Zuzendariak emango ditu baimenak, bi hilabeteko epearen barruan, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epe horren barruan ebazpen adierazirik eman ezik, eskaerari ezezkota eman zaiola ulertu beharko da.

2. Espezie bakoitzeko gehienez ezarritako ale-kopurua baino eskaera gehiago egonez gero, edota zale berriendako ezarritako gehienezkoa baino gehiago, Nekazaritza eta Ingurumen Sailak zozketaren bidez esleituko ditu baimenak, edo, hala balegokio, baimen eta baimenaren epe bakoitzeko, harrapaketa-kopurua gutxitu egingo da proporzionaliki.

2. Las especies que podrán ser autorizadas para su captura y tenencia son las siguientes: jilguero (*Carduelis carduelis*), verderón (*Carduelis chloris*), verdecillo (*Serinus serinus*) y pardillo (*Carduelis cannabina*).

3. El Departamento de Agricultura y Medio Ambiente establecerá anualmente un cupo total máximo de capturas por cada especie autorizada.

Artículo 2º.- REGISTRO DE SOCIEDADES AUTORIZADAS

Se crea, en el Servicio de Conservación de la Naturaleza del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, el Registro de Sociedades de canaricultores, pajariles u ornitológicas, en el que deberán estar inscritas, aquellas sociedades legalmente constituidas cuyos socios pretendan obtener las autorizaciones reguladas en esta Orden Foral.

Las sociedades para su registro aportarán una copia de los estatutos, de la inscripción en el Registro General de Asociaciones, así como un listado de los componentes de la Junta Directiva u órganos de dirección de la sociedad. Será requisito imprescindible que en sus estatutos figure expresamente, la finalidad de cría de estas especies, así como el perfeccionamiento de su canto o belleza.

Anualmente presentarán antes del mes de Julio de cada año, el listado de socios y sus variaciones con respecto a temporadas anteriores y cualquier otra variación en cuanto a su estado jurídico o de los componentes de las Juntas Directivas, así como una relación de los concursos en los que se ha participado, bien como colectivo o los socios individualmente.

Artículo 3º.- REQUISITOS DE LOS SOLICITANTES

1. Las autorizaciones para la captura en vivo y tenencia de ejemplares de las especies autorizadas se concederán exclusivamente y de forma nominal a aquellos miembros de sociedades de canaricultores, pajariles u ornitológicas, que estén legalmente constituidas e inscritas en el Registro de Sociedades de canaricultores, pajariles u ornitológicas del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente.

2. No podrá otorgarse la autorización a aquellas personas que hubieran sido sancionadas por infracción en materia de captura de fringílicas o no hubieran entregado los partes de captura, en los dos años anteriores a la presentación de la solicitud.

3. Las personas o sociedades que se dediquen a la cría deberán estar dadas de alta como núcleos zoológicos, de acuerdo con la normativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4. Las autorizaciones se concederán, prioritariamente, a aquellas personas que hayan participado en concursos o competiciones de canto o belleza de ámbito autonómico o estatal en los dos últimos años. A tal efecto será imprescindible la presentación de las planillas de valoración firmadas por juez federado. No obstante podrán concederse hasta un máximo del 10% de autorizaciones para nuevos aficionados.

Artículo 4º.- SOLICITUDES.

1. Las solicitudes para la captura y tenencia se presentarán anualmente en el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, desde el 1 de abril al 30 de junio de cada año, adjuntando una fotocopia del D.N.I y un aval o justificante de pertenencia a una sociedad registrada.

2. En la solicitud y para cada uno los miembros avalados, será imprescindible indicar:

a) Lugares de captura, indicando el nombre del paraje, población o junta administrativa y término municipal. En ningún caso deberán de encontrarse a menos de un kilómetro de los cascos urbanos.

b) Especies que se desee capturar, sexo y el número de ejemplares de cada una de ellas.

Artículo 5º.- RESOLUCIÓN.

1. Las autorizaciones serán otorgadas por el Director de Medio Ambiente en el plazo de dos meses desde el término del plazo para presentar las solicitudes entendiéndose denegadas en el caso de no dictarse resolución expresa en dicho plazo.

2. En caso de existir un número de solicitudes que supere el cupo máximo establecido por especie, o el máximo establecido para los nuevos aficionados, las autorizaciones se concederán mediante sorteo efectuado por el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente o en su caso, se reducirá en proporción el cupo de capturas por autorización y periodo hábil.

6. artikulua.- HARRAPAKETAK EGITEKO GARAIA ETA ORDUAK

Urte bakoitzeko urriaren 1a eta azaroaren 15a bitarteko egun guztietan, bi horietan barne, harrapatu ahal izango dira hegaztiak, eguzkia irten eta sartu bitarteko orduetan.

7. artikulua.- HARRAPAKETA MODUAK.

Lurreko sare eraiskarriak baino ezingo dira erabili. Espezie bereko ale bizia erabili ahal izango da apezutat, itsutu edo elbarritu gabe eta dagokion eraztunarekin behar bezala identifikatuta. Sarea baimenaren jabeak berak erabili beharko du, eta laguntzaile bat baino ezin izango du izan. Sarea ezingo da inolako edanlekutan erabili, dela naturala edo artifiziala, eta ezingo da erabili hegaztiak erakartzeko urontzirik, jan-ontzirik, grabatutako kanturik ez eta bestelako bitarteko artifizialik ere.

Baimen bakoitzeko bi sare baino ezingo dira erabili.

Sareak zigitatuta egon beharko dute, bakoitza bere zenbakia-rekin. Hartara, Natura Zaintzeko Zerbitzuak baimendutako sareen errolda bat sortuko du.

8. artikulua.- BAIMEN BAKOITZEKO ALE KOPURUA ETA HEGAZTIAK EDUKITZEKO BALDINTZAK.

Kardantxiloetatik, baimen bakoitzeko, hogeitale harrapatu ahal izango dira gehienez, eta gainerako espezieetatik, txorru arrunt, txirriskila arrunt eta burugorrietatik, hamar; horien artean, espezie bakoitzeko, bi ale emeak izan daitezke. Baimen bakoitzeko, eguneko harrapa daitezkeen aleak ere mugatu egiten dira: hamar kardantxilo eta gainerako espezieetatik bost ale.

Harrapaketa-baimenak berak balio du garraio-gidatzat eta hegaztiok edukitzeko baimentzat. Harrapatutako aleak, hegaztien kantua eta edertasuna hobetze aldera, hazteko eta espezieak gurutzatzeko baino ez dira erabiliko.

Harrapatutako aleak saltzea galerazita dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko 16/1994 Legearen 56 d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua.- EMAITZAK JAKINARAZTEA.

Baimendunak txosten bat aurkeztu beharko du urtero Nekazaritza eta Ingurumen Sailean, beranduenez ere urte bakoitzeko abenduaren 15ean; txosten horretan honakoak adierazi beharko ditu: harrapaketa-egunak, zenbat ale harrapatu diren (harrak eta emeak), eta zenbat askatu. Betekizun hau nahitaez bete beharko da hurrengo ekitaldietan baimena emango bada.

10. artikulua.- ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Agindu honetan xedatutakoa hautsiz gero, bidezkoa bada, zigorra ezarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko 16/1994 Legeak ezarritakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru Agindu hau onartzen denetik aurrera, Nekazaritza eta Ingurumen Sailak, hala balegokio, gaitasun- eta ezagutza-probak ezarriko ditu hegazti mokomakurrak harrapatzeko baimena lehen aldiz eskatzen dutenak onartzeko, salbu eta eskatzaileok frogatzen badute azken bi urteetan kantu- edo edertasun-lehiaketaren baten parte hartu dutela.

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko apirilaren 19a.- Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru-diputatuak, GABRIEL CHINCHETRU FERNÁNDEZ DE ALEGRIA.

Iragarkiak**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA****OGASUN ZERBITZUA****2.856****Lizitazio iragarkia**

Zerga inprimakiak, agiri tinbredunak eta bingo txartelak biltegi-ratu, garraiatu, zaindu eta banatzeko zerbitzuak kontratatzeko lehia-keta.

Toki Erregimenaren arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege

Artículo 6º.- PERÍODO HÁBIL Y HORARIO.

Todos los días comprendidos entre el 1 de octubre y el 15 de noviembre de cada año, ambos inclusive y en horario de sol a sol.

Artículo 7º.- MÉTODOS DE CAPTURA.

Únicamente queda autorizado el empleo de redes abatibles de suelo con el auxilio de reclamo vivo de la misma especie que no esté ni cegado ni mutilado y que se encuentre debidamente identificado con la anilla correspondiente. La red deberá ser manejada por el titular de la autorización que no podrá estar acompañado por más de un ayudante. No se permitirá su utilización en ningún tipo de abrevadero, natural o artificial, o atraer a las aves mediante bolsas de agua, cebaderos, cantos grabados, así como cualquier otro medio artificial.

El número máximo de redes autorizadas por solicitud será de dos.

Las redes deberán de estar debidamente precintadas y numeradas. A tal efecto se creará por el Servicio de Conservación de la Naturaleza un censo de redes autorizadas.

Artículo 8º.- CUPO INDIVIDUAL POR AUTORIZACIÓN Y CONDICIONES DE TENENCIA.

Se establece un cupo máximo total por autorización de veinte ejemplares de jilguero y diez del resto de especies, verderón, verdicillo y pardillo, para todo el período hábil, que podrá incluir dos hembras de cada especie. Así mismo, se limita el número de capturas diarias por autorización, a un máximo de diez ejemplares de jilguero y cinco del resto de las especies.

La propia autorización de captura servirá como guía de transporte y permiso de tenencia. Los ejemplares capturados deberán de utilizarse únicamente para la cría y cruce de especies, con el objeto de perfeccionar el canto y la belleza de las aves.

Se prohíbe la comercialización de los ejemplares capturados, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 56 d) de la Ley 16/1994 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

Artículo 9º.- NOTIFICACIÓN DE RESULTADOS.

Las personas autorizadas, con el plazo máximo del 15 de diciembre de cada año, deberán de presentar ante el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, un informe en los que figurarán, las jornadas de captura, el número de ejemplares capturados, machos y hembras, y los liberados. Estos requisitos serán indispensables para la concesión de nuevas autorizaciones en las posteriores campañas.

Artículo 10º.- INFRACCIONES Y SANCIONES.

Las infracciones a lo dispuesto en la presente Orden se sancionarán, según proceda, conforme a lo establecido la Ley 16/1994 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El Departamento de Agricultura y Medio Ambiente establecerá, en su caso, pruebas de aptitud y conocimiento para la aceptación de nuevos solicitantes de autorización de captura de aves fringilidas, que no hubieran demostrado la participación en concursos o competiciones de canto o belleza en los últimos dos años, a partir de la fecha de aprobación de la presente Orden Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de abril de 2001.- El Diputado Foral titular del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, GABRIEL CHINCHETRU FERNÁNDEZ DE ALEGRIA.

Anuncios**DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS****DIRECCION DE HACIENDA****2.856****Anuncio de licitación**

Concurso para contratar los servicios de almacenaje, transporte, custodia y distribución de impresos tributarios, efectos timbrados y cartones de bingo.

Para dar cumplimiento al artículo 122 y siguientes del texto del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril por el que se aprue-